

antzeman

atzeman



antzeman

Esanahi hauek izan ditzake:

nabaritu, sumatu, konturatu, zerbaitez ohartu,
zerbaitez jabetu

igarri, asmatu

ezagutu

...

Antzeman aditzak *dio* eskatzen du eskuarki, literatura-tradizioak ongi asko erakusten duen moduan.

Hona adibide batzuk:

- Antzeman diot ez duela nirekin ezer nahi.
- Berehalaxe antzeman zion Joxepak, nondik zetorren soinua.
- Bere onetik ateratzen ari zela antzeman nion Andoniri.
- Ganadu guztiek eguraldiari antzematen diote.
- Ez dago etorkizunari antzematerik.
- Beren fruituetatik antzemango diezue.

Ez diot antzik ematen eta *ez diot antzematen*:
bi egiturok onartzen dira ezezkoetan.

- Ametsetan hasita ere **ez genioke antzik emango** haien aberastasunak zenbaterainokoak ziren.
 - Janzkera zela-eta **ez nizun antzik eman**, hasieran.
-
- Inork ere **ez zion antzematen** lo gutxi eginda zegoela.

Halako mailakatze bat dugu, dena dela, egiturotan:

Ez diot antzematen
Ez diot antzik ematen
Ez diot antzik ere ematen

atzeman

Esanahi hauek izan ditzake, batez ere:

harrapatu, atxilotu, atzitu

aurkitu

...

Hona adibide batzuk:

- Herioak, sarri edo berant, guztiak **atzematen** ditu.
- Sugandilak **atzematen** genituen, eguzkitan erdi lo zeudela, haur ginelarik.
- Nik txoriak hots eman, hik **atzeman**.
- Tronparia tronpatzea, atzemailea **atzematea**: bikoitza da atsegina, horrelakoetan.

hots eman 'uxatu'

- Louis Pasteur-ek **atzeman** zuen errabiaren sendagaia.
- Zauriak **atzeman** zizkion sendagileak eriari, gorputza miatzean.

Baita erabilera urriko esanahi hau ere: **ulertu**.

Baina betiere irudizko adieran: **hartu**, **harrapatu**,
eta **jaso** aditzen esanahien ildoan.

- Errituaren esanahi ezkutua **atzeman** nahi zuen.
- Idazketaren bidez **atzeman** nahi du idazleak bizitza.